

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

*Nafarroa kalea 50eko partzelan egingo den eraikinaren xehetasun azterketa (12-1 area -OD Zelaieta-). Behin betiko onespena.*

2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honakoa erabaki zuen:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 26an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion Nafarroa kalea 50eko partzelan egingo den eraikinaren xehetasun azterketari; Amenabar Etxegintza Berria SA sozietateak abiarazi zuen espediente hori.

Espedientea jendaurrean jarri zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Partzelaren zati handi bat N-634 errepidearen babes gunearen barruan dago. Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuak adierazi zuen, euren eskumeneko gaiet dagokienez, ez dutela agiria onartzeko eragozpenik ikusten (2018ko apirilaren 18ko txostena).

Behin betiko onespenerako dokumentua aurkeztu dute. Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak adierazi du hasierako onespenerako akordioan ezarritako baldintzak bete dituztela.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez

ERABAKI DU

*Lehenengoa.* Behin betiko onspena ematea Nafarroa kalea 50eko partzelan egingo den eraikinaren xehetasun azterketari; Amenabar Etxegintza Berria SA sozietateak abiarazi zuen espediente hori.

Onartutako dokumentua 2018ko maiatzeko data dauka; Mikel Arrillaga arkitektoak sinatu du.

Egingo den esku-hartzea zuzkidura-jarduketa gisa hartuko da, eta hirigintzako eraikigarritasun haztatuaren hazkundearen % 15 Udalarri eman beharko zaio doan, dirutan. Obra lizentzia eman baino lehen finkatu beharko da diru kopurua.

*Bigarrena.* Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Halaber, behin betiko onspenerako akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian jakitera emango da.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabakia behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Aipatutako epeak iragarki hau argitara ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarautz, 2018ko ekainaren 8a.—Alkatea. (4261)

AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Estudio de detalle del edificio a construir en la parcela de Nafarroa kalea 50 (área 12-1 -OD Zelaieta-). Aprobación definitiva.*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 28 de mayo de 2018, adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 26 de marzo de 2018, aprobó inicialmente el estudio de detalle del edificio a construir en la parcela de Nafarroa kalea 50 (área 12-1 -OD Zelaieta-) promovido por la sociedad Amenabar Etxegintza Berria Lur SA.

El expediente fue expuesto a información pública. No se presentaron alegaciones.

Gran parte de la parcela está dentro de la zona de protección de la carretera foral N-634. El Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral comunicó que no hay inconveniente para la aprobación del documento en lo respecta a las competencias de ese Departamento (informe de 18 de abril de 2018).

Se ha presentado el documento para la aprobación definitiva. El Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente ha informado que cumple las condiciones impuestas en el acuerdo de aprobación inicial.

Previo análisis y deliberación del expediente, la Junta de Gobierno Local por unanimidad

ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitivamente el estudio de detalle del edificio a construir en la parcela de Nafarroa kalea 50 (área 12-1 -OD Zelaieta-) promovido por la sociedad Amenabar Etxegintza Berria SA.

El documento aprobado es el de fecha de mayo de 2018; está suscrito por el arquitecto Mikel Arrillaga.

Se considerará la intervención como actuación de dotación, y se cederá gratuitamente al Ayuntamiento, en metálico, el 15 % del incremento de la edificabilidad urbanística ponderada. La cantidad de dinero se fijará antes de otorgar la licencia de obra.

*Segundo.* Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Posteriormente, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente, el acuerdo se dará a conocer en el diario de mayor difusión del territorio histórico.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra el presente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarautz, a 8 de junio de 2018.—El alcalde. (4261)